

KANALAK:

- Gure bezeroenaga iristea beharrezkoa izango da proiektua aurrera eramateko. Hau gauzatzeko bide desberdinak erabiliko ditugu.

Lehenik, hainbat publizitate kanpaina egingo ditugu, ahal dugun pertsona gehiengana iritsiz. Horretarako alde batetik, garraio publikoan dauden telebistetan iragarki txikiak jarriko ditugu, jende askoren egunerokoan parte hartzen duen eremua delako. Bestalde, kalean iragarki pankarta erakargarriak jarriko ditugu begi bistarako erakargarriak izango direnak. Honela oinezko gehiengoan interesa piztuko dugu. Baita ere, telebistan eguneroko gaueko abilsteak baino lehenago eta ondoren iragarkiak jarriko ditugu produktua azaltzen. Honen bidez, pertsona askorengana iristea lortuko dugu, askok telebistako albisteak kontsumitzeko ohitura dutelako.

Bigarrenik, gaur egungo sozietatean hain erabilgarriak eta guregan bereziki gazteenga, hainbesteko eragina duten sare sozialen bidez gure bezeroekin harremana izango dugu. Tik Tok-eko, Twitter-eko eta Instagram-eko kontuak sortuko ditugu, bezeroarekin kontaktu zuzenago bat sortzeko. Batetik, bezero desberdinen esperientziak zabalduko ditugu. Besteik, produktuarekin zer ikusia duten azken berriak emango ditugu, modelo berriak, diseinu desberdinak, deskontuak etab. Azkenik, gure bezeroen eskakizunak jasoko ditugu sare sozial hauen bidez inkestak eta galdetegiak argitaratuz. Gure ustez, bezeroaren iritzia eta erantzuna beharrezkoa delako aurrera jarraitzeko eta aldaketa egokiak egin ahal izateko.

Azkenik, bezeroarekin harreman zuzenago bat edukitzeko eta haiek ere produktuarekin lehen kontaktu bat izan dezaten hainbat elkarretaratze egingo ditugu eremu desberdinetan.

Iragarki guzti hauetan, gure helburuak eta balioak adieraziko ditugu era apropos batean. Produktuaren deskribapen eta erabilera orokor bat azalduz.